

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko apirilaren 14a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (7. or.).
- Melidako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (13. or.).
- Santakarako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urriaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez (4. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.4. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (4. or.).
 - V.5. Informazio osagarria eta azalpen oharra (4. or.).
 - V.6. 2000ko txosteneko gomendioen jarraipena (4. or.).
- V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - V.1. Administrazio-kontratazioa (5. or.).
 - V.2. Kudeaketari buruzko beste gomendio batzuk (6. or.).

Eranskina. 01-12-31n finkaturiko finantza-egoerako orriak.

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta web helbide honetan: www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak Foru Komunitateko udalen kontuei buruz 1986an eginiko lehendabiziko txosten hartatik hona, gure metodologia aldatzen joan da toki entitateei, Parlamentuari eta gizarteari, oro har, zerbitzu hobea emateko asmoarekin.

Gure ibilbide horren parekoa izan da toki entitateetan, kontabilitatearen kudeaketa eta informazioaren sistemen arloan gertatu den hobekuntza nabarmena. Gure aurreko txostenak zabalak ziren, fiskalizazioaren menpe zeuden toki entitateen aurrekontu betetzea eta finantza egoera hobeki ulertu ahal izateko beharrezkotzat jotzen genuen informazio osagarria ere eransten baiken.

1998az geroztik, Nafarroako Comptos Ganberak erabaki zuen auditoriak egitea urtero 10.000 biztanletik gorako udaletan.

Ekitaldi honetan, Nafarroako kontu orokorre buruzko txostenarekin egin dugun antzera, aldaketa nabarmen samarra egin dugu 10.000 biztanletik gorako udal hauetako txostenen egiturari, eranskin gisa sartu baititugu finantzetako egoerari bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharra, ekitaldiko informazio garrantzitsuena barne, eta horrela txostenaren luzera murriztu egin da, informazioa bi aldiz ez ematearren. Aldi berean, helburu gisa gehitu dugu eranskin horretan adierazitako datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna aztertzea.

Eranskin horren edukia udal horietako teknikariek eta Comptos Ganberakoek osaturiko batzorde batek ezarri zuen, Toki Administrazioeko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen

Federazioaren laguntzarekin. Logikoa denez, edukia gaurkotzen joanen da hurrengo ekitaldietan lortutako emaitzen arabera.

Barañaingo Udalak 22.378 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2001eko abenduaren 31n:

(pezetak, milakotan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2001-12-31n
Udala	1.894.348	1.551.110	122
Lagunak udal zerbitzua	191.134	193.737	23
"Luis Morondo" Musika Eskola	111.433	113.960	27
Guztira	2.196.915	1.858.807	172

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2001 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2001eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Barañaingo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2000ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketara programarekin bat, Barañaingo Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen –Lagunak udal zerbitzua eta Luis Morondo Musika Eskola– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2001eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2001eko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: diru-sarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia plan orokorraren betetzeari buruzko azterketa egitea izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak zein neurritan bete diren iker-tuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsita-ko fiskalizazio printzipioei eta arauei jarraituz eta baldintzen eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Udalaren antolamendua, barne kontrola, era-ginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak ere biltzen ditu txostenak.

Azterketa-lana 2000ko maiatzean egin da.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2001eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. 2001EKO AURREKONTU BATERATUA-REN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2001eko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2001eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena

Erantsirik dagoen 2001eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako -1992koa da-.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz bete da, administrazio kontratazioaren esparruan izan ezik, non adierazi diren zenbait gomendio gai horri buruzko arauak hobeki betetzeko.

IV.4. 2001EKO ABENDUAREN 31KO EGOE-RA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontu bateratua 2.544 milioi pezetakoa izan zen; behin betikoa, berriz, 2.951 milioi pezetakoa. Betetze maila ehuneko 73koa da gastuetan eta ehuneko 62koa dirusarreretan.

2001eko ekitaldian, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 102koa izan zen, eta zeharkakoena ehuneko 163koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 41 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 54 transferentzietan du jatorria eta horrek adierazten du mendekotasun handia dagoela horiekiko.

Ekitaldiaren amaieran, 338 milioi pezetako superabita zegoen eta aurrekontuaren emaitza doituari, berriz, 54 milioiko defizita ageri da, aurreko urtean 209 milioiko dirusarrerak erregistratu baitziren inbertsio batzuk finantzatzeko eta horien gastua 2001eko ekitaldian bete dira. Zorpetzea jaitsi egin da, ekitaldian aurreko ekitaldietan hitzarturiko maileguen amortizazioa amaitu delako, eta ez delako mailegu berririk hartu.

Barañaingo Udalaren 2001eko abenduaren 31ko finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek dira: diruzaintzako gerakin bateratu adierazgarria -952 milioi pezeta-, ehuneko 13ko aurrezki garbia eta zorpetze maila txikia, ehuneko 4,3koa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan behar adina informazio dago haiek ongi ulertzeko.

IV.6. 2000KO TXOSTENAREN GOMENDIO-EN JARRAIPENA.

Oro har, 2000ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke.

• *Erakunde autonomoen kudeaketaren gaineko jarraipen eta kontrol prozedurarik ez da taxutu ez eta aplikatu ere.*

• *Epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlanik ez da egin.*

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, udalari buruz hauxe esan genezake:

- Administrazio kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar du, bereziki kontratazio espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei dagokienez.

- Finantzen ikuspegitik, epe ertain eta luzerako kalkuluak badirudi baliabide berekiak sortzeko ahalmena agor litekeela iragartzen dutela. Gainera, aurrekoa larriagotu egiten da planeamenduan jasotako hirigintza-aurreikuspenak ia bukatuak daudela kontuan hartuz gero; eta ez dago udal dermioa hedatzeko posibilitate fisikorik. Funtsean, egoera horrek honakoak egin daitezela galdetzen du:

a) Udalaren lehentasunezko premien eta horiek finantzatzeko bideei buruzko proiektzio ekonomiko-finantzarioak.

b) Aplikatzekoa den presio fiskalari buruzko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisia.

d) Azterlanak oinarritzkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak hartu aurretik.

Guztiaren helburua udalaren finantza-bideragarritasuna bermatzea da.

- Erakunde autonomoei dagokienez, horien estatutuak osatu eta gaurkotu egin behar dira, haien benetako autonomia-maila agertzera eman ez eta udalak haien jardueraren gain erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakutsiz.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak diren heinean, kontu-hartzailetza publikoaren menpe daudela; horregatik, eginkizun hori benetan bete ahal izateko, udalaren kontu-hartzailetzak prozedura egoekiak taxutu behar ditu.

Halaber, gaur egungo kontabilitate-sistema erakunde horien kudeaketa-eskakizunei egokitua ote dagoen aztertu behar da; benetako beharriaren eta kontabilitate publikoko betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidura-erosketari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak, eta, bestetik, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

a) Gazteentzako baliabide zentroaz arduratzeko zerbitzuen kontratazioa

Zerbitzua 2001eko irailaren 26an lehiaketa irekian eta tramitazio arrunta erabiliz adjudikatu zen, 14,6 milioi pezetako zenbatekoarekin, BEZ barne.

b) Ikastetxeak garbitzeko zerbitzuen kontratazioa

Zerbitzua 2002ko urtarrilaren 9an lehiaketa irekian eta tramitazio arrunta erabiliz adjudikatu zen, 51,8 milioi pezetako zenbatekoarekin, BEZ barne.

Comptos Ganberaren gomendioei jarraituz, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu bat aplikatzen da; hala ere, eginiko lagin-hartzearen ondoren, honako gomendio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- *Espedienteak prestatu eta tramitatzeko lana arduradun bakar batengan zentralizatu behar da.*

- *Jarduketa bati buruzko dokumentazioa dago-kion espedienteen artxibatu beharko da, eta espediente osorik aurkeztu.*

- *Espedienteen tramitazioaren fase bakoitza legez ezarritako epeetan egin behar da.*

- *Behin betiko fidantza, betiere, kontratua formalizatu aurretik ordaindu behar da eta espedienteen agerrarazi behar da gainerako parte hartzaileei adjudikazioaz eginiko jakinarazpena.*

V.1.2 Inbertsioak

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

a) Lagunak-en futbol zelaiko lanetarako proiektua erredaktatzea, obra zuzendaritza eta exekuzioa.

Proiektua eta obra zuzendaritza 2001eko martxoaren 21ean adjudikatu ziren lehiaketa irekian eta presako tramitazioan, 2,7 milioi pezetako zenbatekoarekin.

Obra 2001eko urriaren 10ean adjudikatu zen lehiaketa irekian, 55 milioi pezetako zenbatekoarekin. Obrak 2001eko urriaren 23an hasi ziren; exekuzio epea, baldintza administratiboan pleguan ezarritakoaren arabera, 8 hilabetekoa zen.

b) Oinarritzko gizarte zerbitzuen lokala berritzeko lanak.

Obra hau 2001eko apirilaren 26an adjudikatu zen prozedura negoziatu publikatedunarekin, 11 milioi pezetako zenbatekoarekin. Obrak 2001eko

maiatzaren 17an hasi ziren; exekuzio epea, baldintza administratiboen pleguan ezarritakoaren arabera, 50 egunekoak zen.

Ondorioz, eta aztertutako laginaren laburpen orokor gisa, hauxe gomendatzen dio Ganberak udalari:

- *Legeria indardunaren aplikazioa espedientearen tramitazioan. Komeniko litzateke espediente bakoitzari buruzko informazioa zentralizatzea.*

- *Behin betiko fidantza, betiere, kontratua formalizatu aurretik ordaindu behar da eta espedienteen agerrarazi behar da gainerako parte hartzaileei adjudikazioaz eginiko jakinarazpena.*

- *Presakoa deklaratzeko behar bezala arrazoiturik egon behar da.*

- *Urte anitzeko gastuen kontabilitate-modulua eta finantzazioa atxikia duten gastuen modulua garatzea.*

- *Lizitazio aurrekontu egoki eta errealistak prestatzea, ahalik eta eskaintza gehien aurkez daitezkeen eta adjudikazio prezioak txikiagoak izateko.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuta, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Eguno plantillaren osaketa eta neurriak aztertzea, langile guztiek eta bereziki beheko mailakoek egiaz betetzen dituzten lanekiko eta dauzkaten egungo beharrekiko egokiak diren egiaztatzeke.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendua-
ren zirriborroa taxutu eta onestea. Hartan, udalaren organo exekutiboaren eskumenak finkatu eta bereizi beharko dira.*

- *Musika Eskolaren estatutuak udalaren egungo egiazko antolaketari eta funtzionamenduari egokitzea; batik bat udalak berak betetzen dituen kontrol eginkizunei, eskolak kudeaketa-autonomiarako duen egiazko gaitasunari eta udalaren kontu-hartzailetzak bete beharreko paperari dagozkien alderdiak.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontu-hartzaile-*

letzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua eta zordunak (balantzea)

- *Udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak, bajak eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

- *Udalaren jabetzakoak diren lokal eta etxabeen erabilgarritasuna eta errentagarritasuna aztertzea.*

- *Balantzean kontabilizatzea biltzen zailak diren eta kobratzeko dauden eskubideei dagokien hornidura.*

V.2.3. Aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak

- *Kontuen Batzorde Bereziak kontu orokor bakarra legez ezarritako epean onestea.*

- *Aurrekontua kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea.*

V.2.4 Agentzia exekutiboaren zordunak

Zorrak agente exekutiboari eskualdatzeko egungo epeak edo aldiak laburtzea, hau da, kasuan kasuko erroldak atera ondoko urteko apirila edo maiatza.

V.2.5 Langileria

- *Lan-kontratudunen nominak eta kontratuak barnean egitea komenigarria litzateke, batez ere kontuan izanda giza baliabideetarako departamentu bat sortu dela.*

- *Udalaren jarduketa bati buruzko dokumentazioa dagokion espedienteen artxibatu beharko da, eta espediente osorik aurkeztu.*

V.2.6 Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Ordenantzak behin betikoz onetsirik izatea aplikatu beharreko aurrekontu ekitaldiko lehen*

eguna baino lehen, Toki administrazioari buruzko 6/90 Legearekin bat.

V.2.7 Hirigintza

• HAPOn aldaketa puntualerako espedientearen alternatibak aztertzea, UO-20aren S1 eta S2 sektoreei dagokionez, eta Riocenter, SLren eta Udalaren arteko hirigintza hitzarmena, Nafarroako Gobernuak onetsi ez zuena eta udalaren errekurtsioa eragin zuena administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

• Hirigintza-espeditenteak izapidetzerakoan, udalaren barne kontroleko zerbitzuek –idazkaritza eta kontu-hartzailtza– dauzkaten eginkizunak zehaztea.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan honen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urriaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (7. or.).
- II. Helburua (8. or.).
- III. Norainokoa (9. or.).
- IV. Iritzia (9. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez (9. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (9. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (9. or.).
 - IV.4. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (9. or.).
 - V.5. Informazio osagarria eta azalpen oharra (10. or.).
 - V.6. Comptos Ganberaren aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (10. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (10. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (10. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko beste gomendio batzuk (11. or.).

V.3. Hirigintza (11. or.).

Eranskina. 01-12-31n finkaturiko finantza-egoerako orriak

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta web helbide honetan: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak Foru Komunitateko udalen kontuei buruz 1986an eginiko lehendabiziko txosten hartatik hona, gure metodologia aldatzen joan da toki entitateei, Parlamentuari eta gizarteari, oro har, zerbitzu hobea emateko asmoarekin.

Gure ibilbide horren parekoa izan da toki entitateetan, kontabilitatearen kudeaketa eta informazioaren sistemen arloan gertatu den hobekuntza nabarmena. Gure aurreko txostenak zabalak ziren, fiskalizazioaren menpe zeuden toki entitateen aurrekontu betetzea eta finantza egoera hobeki ulertu ahal izateko beharrezkotzat jotzen genuen informazio osagarria ere eransten baikeen.

1998az geroztik, Nafarroako Kontuen Ganbarak erabaki zuen auditoriak egitea urtero 10.000 biztanletik gorako udaletan.

Ekitaldi honetan, Nafarroako kontu orokorre buruzko txostenarekin egin dugun antzera, aldaketa nabarmen samarra egin dugu 10.000 biztanletik gorako udal hauetako txostenen egituran, eranskin gisa sartu baititugu finantzetako egoerorri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharrak, ekitaldiko informazio garrantzitsuena barne, eta horrela txostenaren luzera murriztu egin da, informazioa bi aldiz ez ematearren. Aldi berean, helburu gisa gehitu dugu eranskin horretan adierazitako datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna aztertzea.

Eranskin horren edukia udal horietako teknika-riek eta Comptos Ganberakoek osaturiko batzorde batek ezarri zuen, Toki Administrazioiko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzarekin. Logikoa denez, edukia gaurkotzen joanen da hurrengo ekitaldietan lortutako emaitzen arabera.

Tafallako Udalak 10.443 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2001eko abenduaren 31n:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2001-12-31n
Udala	1.674	1.615	89
Musika Eskola	53	32	14
Kultur patronatua	61	5	3
Kirol Patronatua	80	35	5
Eskualdeko Kirol Elkartea	2	2	0
Guztira	1.869	1.689	111

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2001 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki entitatei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren

21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2001eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Tafallako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2000ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-ekin bat, Tafallako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen –Udalaren Musika Eskola, Udalaren Kultur Patronatua, Udalaren Kirol Patronatua eta -Eskualdeko Kirol Elkartea– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2001eko ekitaldiko aurrekontu bateratuen likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2001eko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka, eta bateraturiko kontabilitate-orriak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoei dagozkienak.

Lana diru-sarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, lanaren plangintza-fasean agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan harturik, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Txostenean daude udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2002ko ekainean egin da.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2001eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. 2001EKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2001eko aurrekontu bateratuen likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2001eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2001EKO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2001eko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1993koa da– eta ez direla zenbatetsi pentsioen egungo erudetik heldu diren betebeharrak aktuarialak.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz bete da, administrazio kontratazioaren esparruan izan ezik, non adierazi diren zenbait gomendio gai horri buruzko arauak hobeki betetzeko.

IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 2001EKO ABENDUAREN 31N

Hasierako aurrekontu bateratua 2.369 milioi pezetakoa izan zen; behin betikoa, berriz, 2.815 milioi pezetakoa. Betetze maila ehuneko 66koa da gastuetan eta ehuneko 60ekoa dirusarreretan.

2001eko ekitaldian, betetakoaren ehunekoa igo zen bai gastuetan bai dirusarreretan. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 103koa izan zen, eta zeharkakoena ehuneko 88koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 22 baizik ez zuten egin, eta udalaren baliabideetatik ehuneko 66k transferentzietan du jatorria, horiekiko mendekotasun handiarekin, beraz.

Udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak 2001eko abenduaren 31n hauexek dira: diruzaintza-gerakin bateratu positiboa -381 milioi pezetakoa-, aurrezki garbirik ez, 533 milioi pezetako epe luzerako zorra, aurreko ekitaldietan kontratatua, eta ehuneko 7ko zorpetze-muga.

Laburtuz, 1999ko abenduaren 31ko finantza egoerak biztanle tarte bereko Nafarroako gainera-ko udalek batez beste duten zorpetze maila baino altuagoa erakusten du. Horrek, etorkizunean, baliabideen kopuru garrantzitsu bat finantza kargei aurre egiteko erabili beharra ekarriko du eta,

aurrezki garbirik ez badago, gastu arrunt berriak finantzatzeko zailtasunak.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan behar adina informazio dago haiek ongi ulertzeko.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 2000ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Tafallako Udalak, ikuspuntu administratibotik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak, baina beharrezkoak ditu ondokoak:

- *Aurrezki garbirik ezaren aurrean, epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlanak egitea.*

- *Administrazio kontratazioaren gaineko araudiari dagokionez, arreta handiagoa eskaintzea espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei.*

- *Foru Komunitatearen esparruan, udal montepioari behin betiko irtenbidea bilatzea komeni da.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien eginkizunak eta haien autonomia erreala argi eta garbi finkatzea.*

- *Zahar etxeari eskatzea urteko aurrekontu eta kontuen likidazioa epean egin dezala, eta hura udalaren kontu orokorrari atxikitzea eranskin gisa.*

- *“Sociedad Ciudad Deportiva de Tafalla, S.A.”, udal enpresa berrirako, haren kapital guztia baita udalarena, kontu-ematearen sistema ezartzea, udalaren kontu orokorrean sartzea eta finantza kontrolaren sistema.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

Zezen ikuskizunak egiteko zerbitzuaren kontratazioa

Zerbitzua 2001eko apirilaren 4an publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zen, 7 milioi pezetako zenbatekoarekin, BEZ barne.

Igeriketako begiraleen, sorosleen eta neguko zein udako kirol kanpainen zerbitzua kontratatzea.

Zerbitzua 2001eko ekainaren 4an lehiaketa irekian adjudikatu zen, presako tramitazioan, 12 milioi pezetako zenbatekoarekin, BEZ barne.

Oro har, ondorioa da hornidurak eta zerbitzu emateak kontratatzeke prozedura egokia dela; halere, hartutako laginetatik gomendio hauek atera ditugu:

- *Presako tramitazioa sobera erabiltzen da, horretarako arrazoiak espresuki aipatu gabe.*

- *Espedienteetan kontratazioarekin zerikusia duen dokumentazio guztia sartzea.*

- *Behin betiko fidantza kontratua formalizatu aurretik ordaindu behar da.*

V.1.2 Inbertsioak

Ekitaldi honetan Altsasu-Zaragoza trenbidearen azpian oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeke lanen adjudikaziorako espedientea eta SGU 15ean euri-uren hustuketarako galeria berrezartzeko lanen kontrataziorako espedientea aztertu dira; halaber, aurreko ekitaldietan aztertutako lanen jarraipena egin da: UAO-2ren urbanizazioa.

Altsasu-Zaragoza trenbidearen azpian oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeke lanak

Obra enkante irekiaren bidez eta presako tramitazioan adjudikatu zen, 2001eko uztailaren 3an; zenbatekoa 37 milioi pezetakoa izan zen.

Obra zuzendaritza proiektua erredaktatu zuen enpresari adjudikatu zaio zuzenean.

SGU 15ean euri-uren hustuketarako galeria berrezartzeko lanak

Obra enkante irekiaren bidez eta presako tramitazioan adjudikatu zen, 2001eko irailaren 11n; zenbatekoa 65 milioi pezetakoa izan zen.

Espedientea ikuskatu ondoren, honako hau azpimarratzen dugu:

Obra zuzendaritza proiektua erredaktatu zuen enpresari adjudikatu zaio zuzenean.

1999ko eta 2000ko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan aztertutako inbertsio espedienteen jarraipenari dagokionez, adierazi behar dugu Hiri

Antolamendurako Planeko UAO-2 unitatea urbanizatzeko lana atzerapen handiarekin ari dela egitea, urbanizazio lan horiek inguru horretako partikularren lan batzuekin batera egiten arri delako. Era berean, adjudikazioaren hasierako prezioaren desbideraketa gertatzen ari da, obra zuzendaritzak 2001eko azaroan emaniko txostenaren arabera 43 milioi pezetakoa (% 12,67).

Ondorioz, eta aztertutako laginaren laburpen orokor gisa, hauxe gomendatzen dio Ganberak udalari:

- *Udalak bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienez: kontratazio-espeditenteak formalizatzea eta udalaren aholkularitza juridikoak eta kontu-hartzailetzak hautapen prozesu guztietan esku hartzea.*

- *Presako bidea araudi indardunean aurreikusitako kasuetan baizik ez erabiltzea.*

- *Kontratuak ezarritako epeetan betetzea eskatu behar da, eta lizitazio aurrekontu egoki eta errealistak prestatu behar dira obren adjudikazioaren prezioaren eta amaierako likidazioaren artean desbideraketarik izan ez dadin.*

- *Espeditenteetan kontratazioarekin zerikusia duen dokumentazio guztia sartzeara (txosten juridikoa eta abar).*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganbararen iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko litzatekeen neurriak buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

V.2.1. Antolamendu orokorra eta aurrekontua.

Komenigarria izanen litzateke ondokoei buruzko neurriak hartzea:

- *Udalaren egitura aztertzea, udalaren kudeaketa-beharretarako egokia den egiaztatzeke. Bide horretan, aztertu beharko litzateke kudeaketa arloetan oinarritutako antolamendu egitura bat ezartzea.*

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea. Hartan, udalaren organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak finkatu eta bereizi beharko dira.*

- *Idatziz egitea kudeaketarako oinarritzko prozedurak, eta horiek betetzeko faseetarako ardura-dunak ezartzea.*

- *Aurrekontua legez ezarritako epean, hau da, dagokion ekitaldia hasi aurretik, onartzea.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskuratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1993ko udal inbentarioa eguneratzea.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak, bajak eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta araztea, udalaren ondasunak eta haien balorazio zuzena behar bezala ager ditzaten.*

V.2.3. Langileria

- *Plantilla organikoa legez ezarritako epean, hau da, dagokion ekitaldia hasi baino lehen, onartzea.*

- *Foru Komunitateko administrazioaren eta gaitzetzeko udal montepioen esparruan, behin betiko irtenbidea ematea horiei atxikitako funtzionarioei aplikatu beharreko erretiro eta pentsio sistemari.*

Horri buruz adierazi behar dugu 2002ko ekainean Nafarroako Comptos Ganberak txosten bat egin zuela Nafarroako Foru Komunitateko langileen montepioen egoerari buruz; azterlan horren kalkuluen arabera, 2001eko abenduaren 31n, jadanik sorturiko pentsioen egungo balioak 1.512 milioi pezeta egiten zuten.

V.2.4. Zordunak eta Hartzekodunak

- *Hirugarrenen kobratzeko eta ordaintzeko saldoen kontabilitate-erregistro eguneratuak izatea, epemugen arabera kobratu eta ordaindu beharreko zenbatekoei buruzko informazio nahikoa izateko.*

V.2.5. Agentzia exekutiboaren zordunak

- *Ezarritako epea betetzen denean, agente exekutiboarekin dagoen kontratua berritzea.*

V.3. HIRIGINTZA

- *HAPOaren azterlan ekonomiko-finantzarioaren berariazko jarraipena egitea, obrak egiteko aurreikuspenak noraino bete diren, haien kostu*

ekonomikoa edo finantzaketa jakiteko aldizkako azterlanen bidez.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan honen arduraduna, eta berak proposaturik eman

da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako iza-
pideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Melidako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Melidako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Melidako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (14. or.).
- IV. Iritzia (14. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioa (14. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (14. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (15. or.).
 - IV.4. Egoera ekonomiko eta finantzario (15. or.).
- V. Finantzen egoera-orria (15. or.).
 - V.1. 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (15. or.).
 - V.2. Balantzearen egoera-inbentarioa (16. or.).

V. 3. Eraitza ekonomikoaren egoera-orria (17. or.).

I. SARRERA

2001eko ekainaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak eskatutik, erabaki zuen Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea Melidako Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan.

Eskaera hori Comptos Ganberaren 2002. urterako lan plangintzan sartu zen.

Mélida Nafarroako Erriberako udalerrri bat da, Iruña eta Tafallaren hegoaldean kokatua; 2002ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera, 800 biztanle dauzka.

Udalak bere jarduerak egiteko ez du erakunde autonomorik ez eta udal enpresa publikorik ere.

Udala ondoko mankomunitate eta partzuergo-etako kide da:

Aragoi Ibarreko Mankomunitatea.

Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea.

Zarrakazteluko oinarritzko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.

EDER Partzuergoa.

Udalaren zifra adierazgarrienak 2001eko ekitaldian hauexek dira:

(pezetak, milioitan)

	Betetako gastu-aurrek.	Betetako dirusarrera-aurrekontua	Langileak 2001-12-31n
Udala	94,1	109,4	3

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1990 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta Melidako Udalaren 2001eko aurrekontuko gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271, 272 eta 273 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

- a) Udalaren 2001eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2001eko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasunaren arabera garatzen den ala ez aztertzea.
- d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Mélidako Udalaren 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak bere eragiketak Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren arabera erregistratzen ditu (273/1998 Foru Dekretua). Jarraibide hori 1999ko ekitaldian ezarri da udalean.

Beraz, eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antolamendu, kon-

tabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoaren arabera.

Muga bezala, aipatu behar da udal inbentarioa behar adina garatu gabe dagoela, horixe baita balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuenak; horrek eragina izan du udalaren ondare-egoera aztertzeko guk egindako lanean.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

Azterketa lana 2002ko uztailaren egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Mélidako Udalaren 2001ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Honekin batera doa 2001eko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian udalak egindako eragiketak.

IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Udal inbentarioa, alegia balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuenak 2001eko abenduaren 31n, behar adina garatu gabe dagoenez eta 1992an eman eta 2012an muga-eguna duen bankuko mailegua -40 milioi pezetakoa- ez denez erregistratu egoera-balantzean, ezin dugu iritzirik eman udalak 2001eko abenduaren 31n zuen ondare-egoeraren inguruan.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

Mélidako Udalak finantza-egoera ona du 2001eko abenduaren 31n, zor gutxirekin eta 17,5 milioi pezetako aurrezki garbiarekin ekitaldian ixtean. Diruzaintzako gerakin positiboak 102,3 milioi pezeta egiten du.

- Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Mélidako Udalak:

Aurrekontuak eta kontabilitatea modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina honakoak ditu beharrezko:

a) Aurrekontua egiteko teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, inbertsio errealetakoak eta kapital-transferentzietakoak bereziki.

b) Udal inbentarioa garatzea balantzearen egoera-orria-inbentarioaren ibilgetuarekin adosturik, bereziki ekitaldiko inbertsio errealekin.

c) Modu sistematikoan aplikatzea sortzapenaren printzipioa eskubideen likidazioan, mozketa-akatsak antzeman baitira 2001eko aurrekontuari egozteagatik.

d) Ordainagiriaren itzulketak eskubide likidatuen kobrantza txikiagoaren gisa baizik ez kontabilizatzea, eta ez eskubide murrizketa gisa.

- Finantzen ikuspuntutik, egoera garbia du, zor gutxi baititu eta diruzaintza-gerakina altua baita.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**V.1. 2001EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurrekontua (pezetak)	Behin betiko aurrekontua (pezetak)	Likidaturiko eskubideak (pezetak)	Likidaturiko eskubideak (euroak)	Beteta-koaren %
1. Zerga zuzenak	15.967.306	15.967.306	16.049.017	96.456,53	% 100,51
2. Zeharkako zergak	1.000.000	1.000.000	1.604.327	9.642,20	% 160,43
3 Tasak eta bestelako dirusarrerak	11.370.666	11.370.666	11.385.315	68.427,12	% 100,13
4. Transferentzia arruntak	28.085.000	28.085.000	30.480.442	183.191,15	% 108,53
5. Ondare dirusarrerak	45.213.463	45.213.463	45.689.721	274.600,75	% 101,05
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.000.000	2.000.000	0	0,00	% 0,00
7. Kapital transferentziak	5.287.108	10.287.108	4.192.042	25.194,68	% 40,75
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	21.832.396	0	0,00	% 0,00
9. Finantza-pasiboen aldaketak	0	0	0	0,00	% 0,00
Dirusarrerak, guztira	108.923.543	135.755.939	109.400.864	657.512,43	% 80,59

GASTUAK	Hasierako aurrekontua (pezetak)	Behin betiko aurrekontua (pezetak)	Aitorturiko betebeharrak (pezetak)	Aitorturiko betebeharrak (euroak)	Beteta-koaren %
1. Langileen ordainsariak	26.494.205	27.069.857	26.187.285	157.388,75	% 96,74
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	50.360.097	53.612.943	48.887.215	293.818,08	% 91,19
3. Interesak	2.614.076	2.614.076	2.614.076	15.710,91	% 100,00
4. Transferentzia arruntak	6.905.000	7.229.033	6.404.759	38.493,38	% 88,60
6. Inbertsio errealak	18.910.023	41.510.023	6.237.399	37.487,52	% 15,03
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	% 0,00
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	79.865	79.865	480,00	% 100,00
9. Finantza-pasiboen aldaketak	3.640.142	3.640.142	3.640.142	21.877,69	% 100,00
Gastuak, guztira	108.923.543	135.755.939	94.050.741	565.256,34	% 69,28

ALDEAK	0	0	15.350.123	92.256,10
--------	---	---	------------	-----------

V.2. BALANTZEAREN EGOERA-INBENTARIOA

AKTIBOA		PASIBOA	
DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA	DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA
Ibilgetua	1.148.230.019	Funts berekiak	1.259.744.596
1. Ibilgetu materiala	395.763.949	1. Ondarea eta erreserbak	1.238.568.342
2. Ibilgetu ez-materiala	0	2. Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	150.864.131	3. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	21.176.254
4. Herri ondasunak	601.512.074	Epe luzerako zorrak	0
5. Finantza ibilgetua	89.865	4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0
6. Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	Epe laburreko zorrak.	6.410.913
Ibilkorra	117.925.490	5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	4.160.761
7. Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	10.672.670	6. Aurrekontuko hartzekodunak	2.250.152
8. Aurrekontuko zordunak	10.522.374		
9. Finantza kontuak	96.730.446		
Aktiboa, guztira	1.266.155.509	Pasiboa, guztira	1.266.155.509

V.3. EMAITZA EKONOMIKOAREN EGOERA-ORRIA

ZOR

HARTZEKO

DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA	DESKRIPZIOA	EKITALDIAREN IXTEA
61. Langileen gastuak	26.187.285	70. Salmentak	
	11.385.315		
62. Finantza-gastuak	2.614.076	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	45.689.721
64. Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	48.887.215	72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	13.686.369
67. Transferentzia arruntak	6.404.759	73. Errentaren eta ondarearen gaineko ohiko zergak	3.903.011
68. Kapital-transferentziak	0	76. Transferentzia arruntak	30.480.442
69. Kalkulaturiko gastuak	0	77. Kapitalaren gaineko zergak	63.964
		78. Bestelako diru-sarrerak	0
D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa	0	H80 Ekitaldiaren emaitza korrante positiboa	21.115.487
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0	H82 Inbertsioen salmentarengatiko irabaziak	0
D83 Finantza aktiboen salmentarengatiko galerak	0	H83 Finantza aktiboen salmentarengatiko irabaziak	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	60.767
D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	0	H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	21.176.254

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

Santakarako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Santakarako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Santakarako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa (19. or.).
- IV. Iritzia (19. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontuaren likidazioa (19. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (19. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (20. or.).
 - IV.4. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (20. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (20. or.).
- VI. Santakarako Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (24. or.).
 - VI.1. 2001eko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (24. or.).

VI.2. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (26. or.).

VI.3. Gorabeherak (27. or.).

VI.4. Administrazio-kontratazioa (27. or.).

VI.5. Bestelako kudeaketa-gomendioak (28. or.).

VI.6. Hirigintza (29. or.).

- I. eranskina: Santakarako Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera (30. or.).
- II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (31. or.).

I. SARRERA

Santakarako Udalak, Erriberriko Merindadean baitago, 1.051 biztanle zituen 2001eko abenduaren 31n.

Udalak ez du inolako erakunde autonomorik eratu bere jarduera burutzeko, eta aurrekontu bakarra du.

Udalak ondoko mankomunitate eta udal batasunetan hartzen du parte:

- Aragoi Ibarreko Hondakin Solidoen Mankomunitatea
- Zarrakazteluko oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.
- Tafallako Kirol Eskualdeko Batasuna.

Udalak 2001ean dituen kopururik garrantzitsuenak honako taula hauetakoak dira:

Aitorturiko betebeharrak (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (pezetak, milakotan)	Langileak, abenduaren 31n
150.730	126.003	4

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2001 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Santakarako Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko gastu eta diru sarreren aurrekontuen exekuzioa.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271, 272 eta 273 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa nahi-taetzkoa da 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Santakarako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoerak duen agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Santakarako Udalaren (aurrerantzean, "udala") 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide

Orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretura.

Lana diru-sarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia arau subsidiarioen betetzearen azterketa izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak noraino bete diren ikertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa-lana 2002ko maiatzean egin da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Santakarako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. 2001EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2001eko aurrekontuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen ditu, fiskalizatutako ekitaldian udalak egindako eragiketa guztiak.

IV.2. 2001EKO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen du, bi salbuespenekin:

- Ibilgetua osatzen duten saldoen fidagarritasun falta.

• Udalak erabiltzen duen programa informatikoaren kontabilitateko definizioan eginiko akats bat dela-eta, 2001eko abenduaren 31n ondarean sarturik daude soilik 2001ean eginiko inbertsioak eta ekitaldi hartan jasotako kapital transferentziak eta, beraz, ekitaldi batean baino gehiagotan banatu beharreko ibilgetu materialen, ondarearen eta dirusarreraren balorazioa behar baino txikiagoa da, zenbateko hauetan:

	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
Ibilgetu materialak	71.796	431
Ondarea	43.498	261
Zenbait ekitalditan banatu beharreko dirusarrerak	28.298	170

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 2001EKO ABENDUAREN 31N

Santakarako Udalak finantza egoera ona zuen 2001eko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakina

30 milioikoa zen eta aurrezpen garbia ehuneko 20koa. Data horretan udalak ez zuen epe luzerako zorrik eta diruzaintzako funts likidoek 51 milioi pezeta egiten zuten, hau da, udalak 2001eko ekitaldian aitorturiko eskubideen ehuneko 40 inguru.

Aurreko fiskalizazio txostena egin zenetik - 1987. urtea- iraganiko denbora dela-eta, ez da egin gomendioen jarraipena. Nolanahi ere, udalak izandako hobekuntza nabaria azpimarratu behar dugu.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu. Azalpena eroso izan dadin, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

- Udaleko gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka.
- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko eta funtzionalaren arabera-koa.
- Udaleko egoera-balantzea, 2001eko abenduaren 31koa.
- Udalaren 2001eko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Santakarako Udala 2001

Dirusareren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (Pezetak, milakotan)	Aldaketak (Pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (Pezetak, milakotan)	Aitorturiko eskubideak (Pezetak, milakotan)	Aitorturiko eskubideak (Euroak)	Kobratua (Pezetak, milakotan)	Kobratzeko (Pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiarena
1	15.775	-	15.775	15.193	91.310	14.839	354	% 96	% 12
2	2.000	-	2.000	2.103	12.640	1.810	293	% 105	% 2
3	12.300	-	12.300	9.662	58.070	9.614	48	% 79	% 8
4	40.330	-	40.330	35.369	212.572	35.369	-	% 88	% 28
5	33.262	-	33.262	32.660	196.293	31.410	1.250	% 98	% 26
6	1.000	-	1.000	2.718	16.334	2.718	-	% 272	% 2
7	38.545	2.745	41.290	28.298	170.075	24.848	3.450	% 69	% 22
8	-	4.395	4.395	-	-	-	-	-	-
Dirusarrek, guztira	143.212	7.140	150.352	126.003	757.295	120.608	5.395	% 84	100

Ejecución presupuesto de gastos

Kap.	Hasierako aurreikuspena (Pezetak, milakotan)	Aldaketak (Pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (Pezetak, milakotan)	Aitorturiko betebeharrak (Pezetak, milakotan)	Aitorturiko betebeharrak (Euroak)	Ordaindua (Pezetak, milakotan)	Ordaintzeko (Pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztiarena
1	34.700	-	34.700	34.301	206.154	34.172	129	% 99	% 23
2	39.732	(2.733)	36.999	31.968	192.132	31.193	775	% 86	% 21
3	20	-	20	3	20	50	(47)	% 16	-
4	9.810	-	9.810	9.944	59.762	8.753	1.191	% 101	% 7
6	58.950	9.873	68.823	74.514	447.837	50.505	24.009	% 108	% 49
Gastuak, guztira	143.212	7.140	150.352	150.730	905.905	124.673	26.057	% 100	% 100

Santakarako Udala
2001eko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera
(pezetak, milakotan)

Funtzionala	Azalpena	Langileen gastuak.	Ondasun aruntak eta zerbitzuak	Gastu finantzarriak	Transfer. aruntak	Inbertsio errealak.	Aitorturiko guztira betebeharrak,	Guztizk. gain.%
1	Izaera orokorreko zerbitzuak	18.050	4.349	-	50	3	22.453	% 15
3	Gizartearen segurtasuna, babesa eta sustapena	14.191	-	-	1.992	2.733	18.916	% 13
4	Izaera sozialeko ondasun publikoen ekoizpena	2.060	22.850	-	7.785	71.774	104.468	% 69
5	Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	-	4.766	-	-	4	4.770	% 3
6	Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	-	3	-	-	-	3	-
7	Jarduera ekonomikoa	-	-	-	117	-	117	-
0	Zor publikoa	-	-	3	-	-	3	-
	Guztira	34.301	31.968	3	9.944	74.514	150.730	% 100

Santakarako Udala
Egoeraren balantzea 2001eko abenduaren 31n

AKTIBOA

	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	932.287	5.603
Ibilgetu materiala	287.992	1.731
Erabilera orokorreko inber. eta ondasunak	644.295	3.872
Lurrak eta ondasun naturalak	263.077	1.581
Herri ondasunetan eginiko inbertsioak	381.218	2.291
ZORDUNAK	9.957	60
Aitorturiko eskubideen zordunak	5.395	32
Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuk	4.562	28
FINANTZA KONTUAK	50.918	306
Bankuak eta kreditu-entitateak	50.918	306
Aktiboa, guztira	993.162	5.969

PASIBOA

	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
Ondarea	944.615	5.677
Ondarea	944.615	5.677
Epe laburreko zorra	29.752	179
Hartzekodunak aitorturiko betebeharrengatik	26.057	157
Agindutako ordainketen hartzekodunak.	3.695	22
Emaitzak	18.795	113
Pasiboa, guztira	993.162	5.969

Santakarako Udala
Diruzaintzako gerakina 2001eko abenduaren 31n
(pezetak, milakotan)

1. (+) Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak	8.897
Dirusarrerren aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	5.395
Dirusarrerren aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	1.301
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	3.261
Ken kobratzeko zailak diren saldoak	(1.060)
2 (-) Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak	(29.752)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	(26.057)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	(195)
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	(3.500)
3 (+) Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak	50.918
4 Finantzabide atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	
6 Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (1- 2 + 3 - 4)	30.063
Diruzaintzako gerakina, guztira	30.063

VI. SANTAKARAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

VI.1. 2001EKO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

- Gastuen eta dirusarrerren 2001eko aurrekontuan 143 milioi pezetako hasierako kreditua azaltzen da. Hasierako aurrekontu horietan, ordea, aurrekontu-aldaketak gertatu dira. Dirusarrerren ingurukoak aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakinaren zati bat -4,4 milioi pezeta- eta erretiratuen elkartean eginiko inbertsiorako -9,9 milioi pezeta- jasotako kapital transferentzia -2,8 milioi pezeta- gehitzeari zor zaizkio gehien bat. Gastuen ingurukoak berriz aipatutako inbertsio errealerako kreditua handitzeari zor zaizkio.

- Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, beraz, 150 milioi pezeta egiten dute, gastuetan nola dirusarreretan.

- Aitorturiko betebeharrak 150 milioi egiten dute eta beraz, % 100eko betetze maila dute. Betetze maila altu horren arrazoia da, neurria batean, gastuen zenbait kapitulutan, batez ere inbertsioenetan, betetze maila hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izan dela.

Ehunekoetan, honela xehekatzen da gastuen aurrekontua:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	51
Inbertsiokoak	49
Guztira	100

Ikusi daitekeenez, gastuen kapituluetako elementu adierazgarrienak inbertsio errealetan eginikoak dira, udalerriko bideei zoladura emateko hiru urteko planaren hirugarren fasea garatzearen ondorioz, ia 55 milioi pezetako zenbatekoarekin, hau da, 2001eko ekitaldian eginiko inbertsioen ehuneko 75. Gainerako inbertsioak, kirol instalazioetan eginiko psikomotrizitate areto berrirako eta obretarako erabili dira, gehien bat.

Funtzionamenduko gastuen barrenean, atalik garrantzitsuena langileen lansariena da, udalaren 2001eko gastuen aurrekontuko ehuneko 23 hartzen baitu.

Langileei dagokionez, 2001ean 6 langilek jardun dute lanean udalean:

Izaera	Zenbat
Funtzionarioak	4
Behin-behinekoak eta programak (6-15etik 9-15era)	2
Guztira	6

Kontabilitate- eta administrazio-alorrean 2 pertsona aritzen dira lanean: idazkari batek eta gordailuzaintzako administrari-ofizial bat.

Goi karguen lansariek 0,8 milioi pezeta egiten dute, eta alkate nahiz zinegotziei eginiko ordainketei dagozkie, osoki; horien gain PFEZerako atxikipena egiten da.

- Aitorturiko eskubideei dagokienez, 126 milioikoak dira, ehuneko 84ko betetze-mailarekin. Horren arrazoiak dira, batetik kapital transferentzien kapituluak izan duen betetze-maila –41 milioi pezetako aurreikuspena eta aitorturiko eskubideak 28 milioi pezetakoak dira, hau da, ehuneko 69ko betetze-maila–, eta bestetik, aurrekontuan egindako aldaketen ondorioak, diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatu baitira.

Ehunekoaren arabera, hauxe da dirusarreraren aurrekontuaren osaera:

Dirusarrerak	Ehunekoa
Tributuaren bidezkoak	22
Transferentzien bidezkoak	50
Ondarearen ondoriozkoak	28
Guztira	100

Hitz batez, 2001eko finantzabide nagusia transferentziak izan dira, batez ere inbertsioak finantzatzeko jasotakoak. Halaber, ondareko dirusarrerak % 28 egiten dute, udalak herrilurrez egiten duen aprobetxamendutik heldu direnak.

Ondoko taulan tributu nagusiak eta 2001ean horiengatik aitorturiko zenbatekoak (pezetak, milioitan) azaltzen dira:

Tributua	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	15.193
• Hirilur-kontribuzioa	6.223
• Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	3.089
• Landa lurren kontribuzioa	524
• Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	24
• Ilbilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	5.333
Zeharkako zergak	2.103
• Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	2.103

Nabarmena da hirilur kontribuzioaren eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren garrantzi berezia –6 eta 5 milioi pezeta, hurrenez hurren–, gainontzeko tributuak alde handiz gaintzen baitituzte.

Udalak ordainarazitako zergei dagokienez, jarraian agertzen da, zerga-moten arabera, zein

diren udalak aplikaturiko tarifak, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimentzen dituen gehieneko kopuruekin alderatuta:

Tributua	Ehunekoa/adierazlea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea (1)
Hirilur kontribuzioa	0,18	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	8	8 – 20
5 urte bitarte	2,2	2,2 - 3,3
10 urte bitarte	2,1	2,1 - 3,2
15 urte bitarte	2	2,0 - 3,1
20 urte bitarte	2	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obrak	2	2 – 5

(1) 2001ean indarra zuen legeriari jarraikiz.

- 2001eko betetze-egoerak 25 milioiko aurrekontu-defizita agertzen du. Eraitza hori aitorturiko eskubideen eta betebeharren arteko aldearen ondorioa da. Gastuak diruzaintzako gerakin likidoaz finantzatzearen ondorioz egin beharreko doikuntzak egiten baldin bazaizkio saldo horri, 2001eko ekitaldiko aurrekontu-erantzua 20 milioi pezetako defizita da, udalaren arabera.

- 2001eko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 26 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 0,2 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik heldu dira. Kobratzeke dauden kopuruek, dirusarreraren erresultek, 6,7 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 1,3 milioi aurreko ekitaldietatik heldu dira.

- 2001eko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 30 milioi pezetakoa da. Kopuru hori honako honen erantzua da: kobratzeko dauden eskubideak –9 milioi pezeta–, ordaintzeko dauden betebeharrak –30 milioi pezeta– eta funts likidoak –51 milioi pezeta–. Kobratzen zailtzat jotzen direnak milioi bat pezeta egiten dute; guztiak aurreko ekitaldietatik daude kobratzeko.

Diruzaintzako gerakina, 30 milioi pezetakoa, gastu orokorrak finantzatzeko erabiltzen da osorik. Komeni da azpimarratzea udalak ez duela finantzatze-desbideraketa balizkoak kalkulatu diruzaintzako gerakina kalkulaterakoan; kasu horretan diruzaintzako gerakinean funts atxikiak egon litezke.

- Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 2001eko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Azalpena	Ehunekoa
Izaera orokorreko zerbitzuak	15
Gizartearen segurtasuna, babes eta sustapena	13
Izaera sozialeko ondasun publikoen ekoizpena	69
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	3
Guztira	100

Horiek azterturik, nabarmendu beharra dago udalaren 2001eko gastuaren ehuneko 82 izaera sozialeko ondasun publikoak ekoiztera eta gizarte segurtasun, babes eta sustapeneko zerbitzuetara bideraturik dagoela, udalak ekitaldi horretan egini-ko inbertsioen ondorioz.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 2001EKO ABENDUAREN 31N

Ondoko taulan udalaren 2001. urterako ratio edo adierazleak erakusten dira:

Adierazleak	2001 ⁽¹⁾	2000 ^{(1) (2)}
Aurrekontu superabita (defizita) (pezetak, milioitan)	(25)	(10)
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	119.888	105.565
Gastuak biztanleko (pezetak)	143.416	115.505
Biztanleko finantza-zama (pezetak)	3.272	2.000
Tributu dirusarrerak biztanleko (pezetatan)	25.650	23.733
Kobrantzen betetzea (ehunekotan)	84	64
Ordainketen betetzea (ehunekotan)	100	70
Zorpetze-maila (ehunekotan)	-	-
Zorpetze-muga (ehunekotan)	20	17
Aurrezki garbia (ehunekotan)	20	17
Langileria-indizea (ehunekotan)	23	26
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	49	43
Dirulaguntzekiko mendetasuna (ehunekotan)	51	56

(1) Kalkulua egiteko, 2001erako 1.051 biztanleko populazioa aintzat hartu da eta 2000rako 1.045 biztanleko populazioa, Udalak 2000rako eta 2001erako egindako estimazioei dagozkienak.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

- 2001eko ekitaldian aurrekontu defizita mantendu da, 2000n bezala, baina 10 milioi pezetakoa izatetik 25 milioi pezetakoa izatera pasatu da. Arrazoia da 2001eko ekitaldian eginiko inbertsioak hasiera batean aurrekontuan sartutakoak baino handiagoak izan direla.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 13 igo dira eta gastuek ehuneko 23 egin dute gora, eta horrek ere justifikatzen du udalak 2001eko ekitaldian izan duen defizita.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zamak egiten duen zenbatekoak deus gutxi egiten du, udalean ez dagoelako zorpetzerik, eta hori oso egoera onaren adierazgarri da.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 8 hazi dira 2000. urtekoen aldean, funtsean eraikin, instalazio eta obren gaineko zergak gora egin izanari.

- Aurrezki garbia 2000an ehuneko 17koa izatetik 2001ean ehuneko 20 izatera iragan da; horrek esan nahi du 2000ko ekitaldian Santakarako Udala gauza izan dela baliabide arruntekin funtzionamendu gastuei eta finantza zamari aurre egiteko.

- Langileria-indizeak 11 puntu behera egin du, nahiz eta langileria-gastuek gora egin, lansarien igoera dela-eta. Behera egite hori zor zaio langile gastuek ehuneko txikiagoa egiteari aitorturiko obligazioen guztizkoan; egoera hori azaltzeko, kon-
tuan hartu behar da inbertsio errealek gora egin dutela eta horrek isla argia duela inbertsioaren adierazlea gora egitean.

- Dirulaguntzekiko mendekotasunak behera egin du 2001ean, funtsean beste atal batzuk dirulaguntzak baino gehiago handitzearen ondorioz. Nolanahi ere, aldaketak ez du garrantzi materialik.

2001eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	2001
Diruzaintzako gerakina	30
Epe luzerako zorra	0

Ikusi dezakegunez, Santakarako Udalaren egoera, 2001eko abenduaren 31n, oso ona da.

Aurrezki gordina pasatu da 14 milioi pezetakoa izatetik aurreko urtean 19 milioikoa izatera 2001ean, batez ere eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren dirusarrerek gora egin dutelako.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Santakarako Udalaren 2001eko informazioa eta Nafarroan biztanle-tartes¹ bera duten udalen 1999ko batez bestekoa.

(1) Datu hauek Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

Ratioak	1001etik 3000ra biztanlera bitarteko udalak, 1999an	Santa kara 2001
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta (pezetatan)	70.923	72.517
Biztanle bakoitzeko dirusarrera arrunta (pezetatan)	101.158	90.377
Biztanle bakoitzeko tributu- dirusarrera (pezetatan)	51.681	25.648
Zorpetze-muga (ehunekotan)	32	20
Zorpetze-maila (ehunekotan)	9	-
Aurrezki garbia (ehunekotan)	22	20

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik², honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Gastu arrunta handixeagoa da antzeko ezau-garriak dituen udal batek 1999an batez beste duena baino.

- Bestalde, Santakarako biztanle bakoitzeko dirusarrera arrunta biztanle tarte horretan dauden udalen batez bestekoa baino 11.000 pezeta txikiagoa da.

- Tributu arloko dirusarrerak, biztanleko, batez bestekoa baino 26.000 pezeta txikiagoak dira.

- Santakarako Udalaren zorpetze muga Nafarroako biztanle-tarte horretako udalen batez bestekoa baino baxuagoa da; 2001ean, udalean ez dago zorpetze mailarik ez eta biztanle bakoitzeko finantza zamarik ere.

VI.3. GORABEHERAK

Auzi bat badago herrilur batzuen loteen adjudikazioa dela-eta, eta udaleko idazkaritzaren iritziz ez du 2001eko aurrekontu betetzean ondorioak ekar ditzakeen pasiborik eragin.

VI.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Erosketen sistemari buruz eginiko laginketari jarraituz, ondoko gomendio orokorrak egin nahi ditugu:

- *Udalari aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz gauzatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzaitzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

- *Ahaleginak egitea ekitaldi bakoitzak ekitaldian bertan sortutako gastu guztiei euts diezaien.*

- *Espedienteak egitea adjudikazio prozesu guztietan, haien zenbatekoa edozein delarik ere.*

VI.4.2. Inbertsioak

Kontratazio espediente hauek azertu ditugu:

Espedientea	Adjudikatzeko prozedura	Pezetak, milakotan	Obraren exekuzio-portzentajea
Bideen urbanizazioa, 3. fasea	Lehiaketa	54.835	Amaitua
Psikomotrizitateko gela	Negoziatua	7.140	Amaitua
Aldagelak eraberritzea	Negoziatua	5.208	Amaitua

(2) Gogoratzen dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

Aztertutako espedienteek kapitulu honetako ekitaldiko betebeharren ehuneko 90 egiten dute.

Ondoren, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

a) Espedienteak aztertuta, administrazio kontratazioa arautzen duen arau indardunak behar bezala bete direla ikusi dugu, bai eta espedienteen jarraipena ere, administratiboa zein kontabilitatekoa.

b) Aztertutako espedienteen alderdi aipagarrienak hauexek dira:

Bideen urbanizazioa, 3. fasea: Santakarako udalerriko hornidura eta saneamendu sareak erai-ki eta kaleei zoladura emateko urbanizazio lanak dira.

Obra 2000. urtean adjudikatu zen 47 milioi pezetatan, lehiaketa erabiliz. Inbertsioak, azkenean, 55 milioi pezeta egin zituen, udalaren osoko bilkurak 2001eko ekitaldian onetsiriko obra gehi-kuntza batzuk dira-eta.

Psikomotrizitate gela: Obra 7 milioi pezetatan adjudikatu zen 2001ean prozedura negoziatuaren bidez eta aurrekontuko aldaketa bat onetsi ond-tik, ez baitzegoen sarturik hasiera batean 2001eko aurrekontuan. Obra hori 2001ean amaitu zen adjudikatu zen zenbatekoan desbideraketarik gertatu gabe.

Aldagelak eraberritzea: Futbol zelaiko aldage-lak berritzeko lanak; 2001ean adjudikatu ziren 5 milioi pezetako zenbatekoarekin. Inbertsio hori 2001eko ekitaldian amaitu zen eta behin betiko zenbatekoa ez da adjudikatutakotik desbideratu.

VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIO-AK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabe-ra sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere anto-lamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emango ditu-gu.

VI.5.1. Antolamendu orokorra

Ganbara honek ondoko gomendioak eman ditu:

- *Aurrekontuak udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gida-dokumentua izan behar du, eta ez legeak ezarritako nahitaezko dokumentu soil bat. Erabakiak hartzeko oinarritzko dokumen-tua aurrekontua izan dadin, beharrezkoa da kon-tabilitatea eguneratua edukitzea eta aldiari-aldian aurrekontu-betetzeari buruzko egoera-orri bat aur-*

keztea. Horrela, eginiko gastua eta konprometitu daitekeena ezagutuko da eta, beharrezkoa bada, aurrekontu-aldaketak egin ahalko dira, gaindituri-ko kontusailak egotea saihesteko.

- *Udalaren egitura aztertzea, udalaren kudea-keta-beharretarako egokia den egiaztatzeko.*

- *Barne araubideko erregelamendu bat egitea, udalaren organo exekutiboan eskumenak defini-tzeko eta eskumenak organoen artean banatzeko.*

- *Idatziz egitea kudeaketarako oinarritzko pro-zedurak, eta horiek betetzeko faseetarako ardura-dunak ezartzea.*

- *Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloetan eragina duen egintza orok honako baldintza hauek bete beharko ditu:*

a) *Behar bezala baimenduta egonen dira.*

b) *Dagokion kontabilitate-dokumentuan azal-pena edukitzea, exekuzio-oinarrietan ezarritakoa-ren arabera.*

c) *Behar den justifikazioa izan beharko du, eta, fakturei dagokienez, ikus-onetsia izan beharko dute.*

d) *Kontu-hartzaileak horiek ikusita behar du.*

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskritu-ratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak, bajak eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpi-deei jarraituz.*

VI.5.3. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

Udalak ordenantza fiskalak ditu, 1997an one-tsiak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara-tuak.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak aldiro eguneratzea eta, bidezkoa bada, tarifa fiskal berri guztiak ezar-tzen dituen ordenantza fiskala urtero onestea.*

VI.5.4. Alderdi orokorrak

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Aurrekontuko gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzea, aurrekontuaren betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko.*
- *Aurrekontu-aldaketen espedienteak aldaketa horiek egiten diren unean osatzea, euren kontabilizazio, informazio eta onespeneraren artean denbora-desfaserik izan gabe.*
- *Gastuak eta dirusarrerak beren jatorri ekonomikoaren arabera egozte aurrekontuari.*
- *Finantzaketaren desbideraketak kalkulatzeko, diruzaintzako gerakina modu egokian sailkatzeko, baliabideak zenbait inbertsiori atxikirik dauden ala ez, horren arabera.*
- *Gastuak modu egokian sailkatzea haien izazaren arabera, kasuan kasuko epigrafeen barrenean.*
- *Udalak jasotako fidantzen eta abalen banakako kontrola eraman behar du.*
- *Programa informatikoaren parametrizazio egokia, inbertsioak, balantzearen barrenean, dagokien ibilgetuaren atalean jasorik gera daitezkeen, eta ez ondarearen barrenean, hala gertatzen baita orain.*
- *Udan igerilekuetan lan egiteko kontrataturiko langileak hautatzeko kontratazio prozedura egokia irekitzea.*

VI.6. HIRIGINTZA

Santakarako Udalarentzat egun indarra duen araudia 1991ean onartutako arau subsidiario bat da.

Gaur egun, Santakarako Udala udal plana tramitatzen ari da, udalean gertatu diren aldaketa

garrantzitsuak eta egun indarra duen araudira egokitu beharra direla eta.

Udalak, gaur arte, ez du idatzizko azterlan ekonomiko-finantzariarik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzko jarraipen berriazkorik ere.

Udalak ez du plantillan hirigintza arloko teknikari den langilerik. Udaleko hirigintzaren kudeaketa Tafallan dagoen eraikinak zaharberritzeko bulegoak betetzen du.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Hirigintzaren arloan ezarritako betebeharrak orokorrak betetzea.*

- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta jarduketa programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*

- *Hirigintzako administrazio espediente guztiek hurrengo helburuak lortzeko behar den dokumentazioa izan dezaten ahalegintzea:*

- **gardentasuna eta publizitatea bermatzea.*

- **erabakiak hartzeko behar diren txosten tekniko guztien bermea izatea.*

- **interes publiko edota soziala behar bezala justifikatzea.*


- *Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –idazkaritzak eta kontu-hartzaitzak– hirigintzako espedienteen tramitazioan bete beharreko papera zehaztea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 29an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina: Santakarako Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera



II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak (1. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	